


GUDU ARTEKO LURRALDEA

Zdravko Duša



Itzulpena: Hitzurun Hizkuntz Zerbitzuak



Zdravko Duša

GUDU ARTEKO LURRALDEA

Itzulpena: Hitzurun Hizkuntz Zerbitzuak

Nire hasierako ideia liburu hau Simon Rutar historialariak 1882an argitaratutako *Zgodovina Tolminskega* (Tolmineko eskualdearen historia) lanaren pasarte batzuekin hastea zen. Erabat zentzuzkoa iruditzen zitzaidan, baina azkenean, gauzak beste bide batetik joan ziren. Tolminen historiako gertakari garrantzitsu bakarra dirudienari (Lehenengo Mundu Gerrako Isonzoko -Soča- Fronteaz ari naiz) buruzko orri eta kapitulu amaigabe eta izugarriak pilatzen zihoazkidan bitartean, garai hari buruzko funtsezko lanetako bat irakurtzeak, Vasja Klavora-ren *Koraki skozi meglo* (Laino artean ibiltzen), ate berri bat ireki zidan. Eta ez bakarrik hori izan delako Tolmin eskualdearen bihotzera sartzeko nire atea, eta primeran dakidalako zeri egiten dion erreferentzia; izan ere, argi eta garbi ikusi nuen Tolmineko eremu bortitzago hau ikuspegi bakar batetik besarkatu daitekeela, eta idazten nuena hautatzen eta baztertzen nuen bitartean bilatzen nituen ertzak eta mugak, eguneko argia bezain garbi ikusi nituen hor goitik. Horixe gertatu zitzaidan Mengore muinoaren azpitik eta Volče gaineratik doan bidetik eskuinerantz eginda aurrean irekitzen den ikuspegiaren deskribapena irakurtzen nuen bitartean, eta nola panorama zabal batek bidearen ondoan dauden baserrien siluetak erakusten dizkigun, eta beheago, herrian, eskuin aldera, San Daniel, eta ondoren, gorago eta urrutirago, larre eta muino eta mendi artetik doan atzealdeko eszena dekorazioa, hodeietaraino iristen dena, eta seguruenik Bohinj aldetik ere ikusi ahalko dena. Ez dago azaltzeko modu laburragorik. Baina, batez ere, ezinezkoa da paragrafo gutxi batzuetan eta Klavorak egin zuena baina modu ederragoan biltzea paisaia eta historia, eta bertan bizi diren jendeen ondare eta izaeraren deskribapenarekin uztartzea, eta gozagarri egitea.

Goiko logikari jarraituta, Tolmineko arroak Bučenica eta Modrej artean dagoen eremua ere bildu beharko luke, Most na Soči-raino.

I. Mundu Gerrako kontakizunek ziotenaren arabera, mendebalderantz Kozmerice eta Sela herrietan barrena zabaltzen zen, eta Tolmineko zubi buruaren kanpoko mugak marraztuta, Kozaršče, Čiginj, eta Volče herriak, eta erdian Mengore, ere biltzen zituen; ekialderantz, aldiz, Idrijca ibaiaren bi alboetara dauden larreak, Trebušaraino, Bača ibaiaren alboetako arroilak eta aldapak, Šentviška Planota-ko goi lautada barne. Izan diren iraultzaile eta letragizon gehienak lurralde horietan jaioak dira.

Ivan Pregelj eta Saša Vuga idazleak Most na Sočikoak ziren. Ciril Kosmač-ek ibaian gorago eraiki zuen bere nortasuna, Slap ob Idrijci-n; ez zen itzal handiko familia batean jaio, Vuga bezala (ezta Pregelj ere), baina Bukovicako txabola xume batean, Idrijca ibaiaren ertzean, aitik norberarenganako errespetuaren balio unibertsala irakatsi zion. Beraz, azkenean, inolako premeditaziorik gabe, paisaia literarioak ia erabat egiten zuen bat egungo Tolmin udalerriaren mugekin.

Idazkiei dagokienez, denboraren itzal artetik agertu zen lehena *Fish Faronika* izan zen. Abesti herrikoi zaharra 1886. urtean grabatu zen lehen aldiz, Podmelec-en, eta ondoren, ospetsu egin zen sorkuntzaren mito eslaviar, indoeuropar, are europarrak ez diren mitoen esploratzaileentzako iturri gisa. Beste hiru bertsiok egin ziren, guztiak Podmelecen, eta gure mundua bizkar gainean daraman arrain erraldoi bati buruz hitz egiten jarraitu zuten XX. mendean oso aurrera ere: arrainak isatsa mugitzen badu, lurrikara bat gertatuko da, eta uretan barrena sartzen bada, mundu osoa itoko da. Kreatura pagano ankerrari jarraituz, igeri doa Jesus, mugak jarritz haren suntsiketa bidegabeari, hondamendia merezi duten eta merezi ez duten pertsonak bereiziz. Mundu paganoak eta kristauak bat egiten duten puntu zehatzean gaude, errukiaren jaiotzaren unean, zeinak munduan eta historian barrena ibiltzeari ekin zion, itxaropenez beteta.

Fish Faronika izan zen Ivan Pregeljek bere *Plebanus Joannes* (Joanes apaiza) eleberriko protagonistari esleitu zion obsesioa. Joannesen pertsonaia Janez

Potrebujež-engan dago oinarritua, zeina, Tolmineko parrokiako kroniken arabera, bikario izan zen Andre Mariaren Jasokundearen elizan

-V *Tminu tam na ilovci* poeman agertzen dena, eta bertsoan kontatzen duena urtero kanpoaldean dagoen Mariaren estatuaren alboan loratzen den lorearen kondaira- berrogei urtez, 1516tik 1556ra. Hori izan zen Tolmineko eskualdeak izurritea pairatu zuen garaia, garai benetan aproposa bekatuari eta zigorrari buruz galde egiteko: Zergatik hil behar dira gizon guztiak, leku guztietan? Luzera ertaineko eleberria (1921. urtean argitaratua) Tolmin eta Volče artean kokatzen da, eta bertan Plebanusen arerio eta antipoda ez-moral den De Menezeis da bikario. Lanak sentitzen duenaren eta ustez sinetsi behar duenaren arteko talka dela eta gatazka amaigabe bizi den tokiko pertsonaia bat aurkeztuko digu; kontzientziaren eta zorrotasunaren, printzipioaren eta ondorioaren, gorputzaren haragikeriaren eta espirituaren santutasunaren arteko barne borrokaren jasan behar duena. *Tolminci* (Tolmineko jendea) nobelan, barne borroka horixe aurkeztuko digu Pregeljek, baina Andrej Laharnar nekazariagan gorpuztua, zeinak jainkoaren ardurarekiko fedearen eta matxinatzeko bere barruko aginduen arteko urradura mingarria bizi duen. Gatazka moral bera biziko du, geroago ikusiko dugunez, Ciril Kosmačen Temnikar nekazariaren pertsonaiak, zeinak bitartekari lanak egin beharko dituen modu ez moralean bizitzearen eta bere heriotza eta beste pertsona batzuen eragingo lukeen moralaren betearazpenaren artean.

Tolmineko nekazarien altxamendua da lurralde txiki horren historiako emantzipazio ekintza nagusia. Tolmineko kondearen ankerkerien gaia etengabe errepikatzen da istorio herrikoietan. Haietan kontatzen zaigu nola Kozlov Robeko muinoko jaunak zeruaren zigorra jaso zuen nekazari bat sotoan usteltzen utzi izanagatik, txanpon laurden batengatik bakarrik, edo nola jan zuten bizirik zorriek. Ondoren, 1713an, Tolmineko nekazarien martxak - Mengore mendixkan bildu zirenak eta Gorica presondegian arrazoirik gabe giltzapetutako kideak askatzera atera zirenak- bide eman zion Goriška Brda mendietako biztanleen errebolta, gero Vipava eskualdetik zabaldu eta Karst-en barrena hedatzeko, Duino-raino.

Baserritar errebolteriek nekazal sindikatu bat sortu zuten, Idrija-ko meatzariak aztoratuta zeuden. Labur esanda, matxinada politiko bat gertatu zen eta Alemaniako unitate bereziko soldaduek eta Karlovac-eko *krajišnik* izenekoek bakarrik geldiarazi ahal izan zuten (azken horien izena muga militarren eskualdetik dator: Vojna Krajina). Militar patruilek nekazari susmagarriak jazartzen zituzten, eta ehunetik gorak Goricako gazteluko ziegetako izugarrikeriak jasan behar izan zituzten; Tolmineko hamaika nekazarik jarri zituzten beren buruak Goricako eliza pareko plazako mozteko oholean, errebolta etenarazi eta urtebetera. Matxinadak gertaturiko lekuetan luze jasan behar izan zituzten zergak, zigorrak, ondasunen konfiskatzeak eta zainketa zorrotzak. Podmelec-eko Santa Mariaren Jasokundearen elizako freskoak (seguruenik 1718koak) eta haietan ikus daitezkeen arima galduak infernuan jasandako atsekabe izugarriei buruzko irudikapen harrigarriak, ustez, iraultzaren errepresioaren inguruan eraikitako giro zailak inspiraturikoak dira.

Hogeigarren mendean, matxinada gai nazional, sozial edo etiko gisa ikusten hasi ziren, edo, besterik gabe, kontakizun erakargarri gisa. Tolmineko historiako kapitulu epiko horretaz hitz egin zuen, halaber, France Bevk-ek: *Iskra pod pepelom* (Pindar bat errauts artean), *Iz iskre požar* (Sute izugarria txinparta batetik), *Tolminski punt* (Tolmineko nekazarien errebolta), eta *Pravica do življenja* (Bizitzeko eskubidea) lanetan -Janez Dolenc-ek azken horri buruzko antzezlan bat egin zuen, izenburu berarekin-. Alojzij Remec-ek *Veliki punt* (Errebolta handia) eleberria idatzi zuen. Poesiari dagokionez, ezagunena Alojz Gradnik-en *Tolminski punt* (Tolmineko errebolta) soneto bilduma da. Gradniken herrikide den Brda eskualdeko Zlatko Kaučič-ek izen bereko jazz musikako lan bat sortu zuen ia ehun urte geroago. Ubald Vrabec konpositoreak *Tolminski puntarji* (Tolmineko errebeldeak) opera idatzi zuen eta berriz entzun ahal izan zen Iztok Mlakar abestigilearen eskutik, eta komiki baterako ere egokitu zuten (Remigio Gabellini italiar egilearena). Horretaz gain, gai berari buruzko margolanak sortu zituzten Tone Kralj, Riko Debenjak eta Rudi Skočir margolariak, eta Tolminen jaiotako Boštjan Kavčič eskultoreak

ere lan bat eskaini zion altxamenduari, eta estatua hiri erdian kokatu zuten gertakizunaren 300. urteurrenean. Hari buruz ere hitz egingo dugu liburu honetan, adierazitako *Fish Faronikaren* irudikapenik berrienetako baten egile gisa. Silvester Komel-ek eta Tolminen jaiotako Ivan Čargo-k ere beren lanetarako abiapuntu izan zuten matxinada. Vladimir Kavčič-ek idatzitako *Pustota* (Lurralde desbabestua) laneko kontakizunak Cerkno eta Žiri mendien artean dagoen paraje batera erbesteraturiko Tolmineko erreboltari familia bati buruz hitz egingo digu.

Dena dela, erreboltari buruz literaturan egin den lanik ospetsuena Ivan Pregeljen *Tolminci* (Tokmineko jendea) eleberria da, eta ondoren, *Štefan Golja in njegovi* (Štefan Golja eta bere lagunak), *Zadnji upornik* (Azken erreboltaria), eta *Matkova Tina* (Matkoren ostatuko Tina) ezaguna. Hasieran, *Dom in svet* (Etxea eta mundua) aldizkarian kapitulutan aurkeztu zuenean, Pregeljek *Tlačani* (Zerbitzariak) izena jarri zion lehenengoari, eta liburu bezala argitaratzera zihoanean aldatu zion izena, *Tolminci* jarriz. Aldaketa horrekin kolektibo bat sortu zuen -edo besterik gabe, birplanteatu egin zuen, bi mende luzez “Tolminci” izena erreboltariak izendatzeko generiko gisa erabili baitzen-, gizatalde auresanezina, leialtasunaz ari garenean, eta koherentea, beren eskubideez ari garenean.

Goricako *Landstände* (Probintziako estatuak) direlakoetatik ikusita, Tolmineko jendea gatazkatsua, tematia eta setatia da benetan. France Bevkek berdin irudikatu zituen *Znamenja na nebu* (Seinaleak zeruan) lanean: Tolmin konkistatu ondoren, Goricako patriarkiaren gaineko garaileak errealitate gordinaz jabetuko dira, haien mendeko berriengandik espero zuten leialtasun adierazpenaren orde. Hala ere, Pregelj gai izan zen bere nekazari kideei buruz luze hitz egiteko, eta haien asmamena antzeman eta islatzeko; esaterako, Anton Muznik-i buruzko istorioan. Muznik egiaz existitu zen, Most na Sočin jaio zen, eta XVIII. mendeko bigarren erdialdeko Goricako giroa aztertu eta deskribatu zuen.

Hemeretzigarren mendearen bigarren erdialdean, nazio osoan bizi zen

iskanbila giroak Tolmini ere eragingo dio. Simon Gregorčič poeta nahiko hurbil bizi zen, ia bertakoa zen, eta garai hartan Esloveniako iratzartze nazionalako ikono eta ardatz funtsezko izan zen (dagoeneko, eskolan zela, poema oroigarri bat irakurri zuen *Béside* izeneko ekitaldi kultural/politiko batean. Ospakizun horiek Tolmineko "irakurketa klubean" egiten ziren -klub soziala eta heziketakoa-). Garai horretakoak dira, halaber, Tolmineko seme Peter Kozler, Jovan Vesel Koseski, Karel Lavrič eta Henrik Tuma legegizonak, guztiak ere Esloveniako historia nazionalaren sortzaile, hein handiagoan ala txikiagoan.

Orduan ari zen amaitzen Kozler Esloveniako lurraldeen lehenengo mapa ezagunari buruzko lana, eta enkarguak ere bazituen; horren erakusgarri da bere zirriborroak eta inprimatzeko xaflak zigilatu zituen Vienako gorte militarren ekintzarekiko bere haserrea erakusteko idatzi zuen kexa gutuna. Karel Lavrič gizon sentikorra zen eta krisi pertsonala jasan zuen Tolminen igaro zuen garaian; hala, katoliko izateari utzi eta protestantismoaren jarraitzaile egin zen, eta bere buruaz beste egiten saiatu zen maitasun istorio baten porrotaren ostean, baina tokiko biztanleentzat esloveniar irakurketa klub bat sortzea ere lortu zuen. Tolminetik alde egitera zihoanean, Goricako bigarren hezkuntzako ikasle anonimo batek agur soneto kartsu bat idatzi zion. Horren atzean Simon Gregorčič zegoen. Henrik Tumak azoka hiriaren bizitzari buruzko kontakizun atseginak idatzi zituen. Nahiz eta Tumak berak, pertsona goibel eta harroputza izaki, -baina intelektualki zirikatzailea, baita zorrotza ere- ez zuen atsegin berezirik hartzen bizitza horrekin. Azoka hiriko pertsonaia ohoretsuen bufoikeriak, haien presentziaren erosotasun intrusiboak, eta beren eginbeharrei heltzerakoan zuten jarrera axolagabeak ondo markaturiko lerro bat marrazten zuen Tolminen, bertako pertsonaia ohoretsuen -friuliarrak, italiarrak, baina baita karniolarrak eta kroaziarrak ere, zeinak herrira iritsi ziren lan administratiboak egiteko, edo apaiz, fiskal eta langile aritzeko- eta inguruko herrien artean. Tuma herri horietara joaten zen bertako biztanleen xarmaz eta haien hizkuntzaren indarrak gozatzerantz: hortxe ikusi zuen nazio osoko proiekturako potentziala eta babesa.

(Hala ere, interesgarria -edo tipikoa?- da Ivan Kuk izeneko bertako biztanle batek Tolmin eskualdeari buruz duen ikuspegia. Kukek herria etsaitasunez beteriko oihana zela zioen *Dantejeva jama* (Danteren haitzuloa) kontakizuna argitaratu zuen *Prijatelj* (Laguna) aldizkarian; Migovec mendiaren tontorretik Carniola Goira begiratuta haren begien aurrean geratuko da mendien eta Bled aintziraren edertasuna, eta handitasun inplizitua, baita iratzartze nazionalari dagokionez ere; baina begirada bere jaioterri den bailararantz zuzentzen duen heinean, Kozlov Robeko muinoa meta erdi erori baten gisara azalduko da, lauso, bertan egoteko baimenik izango ez balu bezala, eta haren atzean putzu desatsegin bat, tarteka bete behar izaten dena, ez baitu behar adina ur).

Tumak gauza asko zekizkien eta memoria bikaina zuen, eta inolako errukirik eta enpatiarik erakusten ez zuten historiak kontatzeko haren talentua ere ezin da zalantzan jarri. Hala, bere autobiografiako Tolmineko kapitulua ingurune horren analisi zorrotz eta argia da.

Gauzak erabat aldatu ziren trenbidea iristearekin batera, 1906an, baita, hamarkada bat geroago, Mundu Gerrarekin ere. Berrogeita hamar urte baino gehiago igaro behar izan ziren azken horri buruzko hondar eta inpresioetatik irudi zabalago bat eraikitzen igarotzeko. Gaur egun, testu historikoekin, dokumentuekin eta testigantza pertsonalekin liburutegi txiki bat bete ahalko genuke. Tolmineko zubi-buruari buruzko irudikapen gehienak Vasja Klavorarenak dira. Klavorak tokikoen lekukotzak eta historia militarra konbinatu zituen aurrez aipatu dugun *Laino artean ibiltzen* lanean. Gure liburuan, garai horri buruzko bost ikuspegi desberdin aukeratu ditugu. Erwin Rommel ofizial alemaniarrek Tolmineko eremuaren gertaeretan oinarrituriko azterketa lehorra egin zuen; lekua gune fisiko gisa ikusten zuen, topografo baten begiekin, bere erreferentzia puntu eta posizioekin, gerra esparru bat, nondik mapa militar batean azpimarraturiko ingurune fisikoa deszifratzen saiatuko garen. Lehenengo austriar gerra korrespontsala izandako Alice

Schalek nahiko salbu egon zen joko eremuaren gainean, eta gogora ekarriko zuen ikuspegi militar hori, baina lekuko baten hitzekin indartzen saiatu zen, termino militarrei esanahi jakin bat, esperientziaren zentzua eta giza figura bat erantsita. Jakob Prešeren soldadu esloveniarraren eguneroko oharren bidez, gudu zelaitik atera eta tokiko jendearen bizitzan sartuko gara. Prešeren Isonzo Fronteko gudu latzenetan borrokatu zen, 1917ko urriko egun eta gau erabakigarri horietan. Isonzoko hamabigarren gudu basatiaren kontakizuna errealista da ikuspegi militarretik, baina hura herriko etxe batean sartu bezain laster, tokiko jende artean aurkituko gara, alemaniarra edo atzerritarra izan balitz atea irekiko ez lioketen jendearen artean. Prešeren askatutako upategi friulirrak hustera joan zenean, Ciril Munih hurbildu zitzaion, Santa Luziako bikario eta Most na Sočiko eta inguruko herrietako gerra garaiko bizitzaren kronikagilea, eta bertako biztanleen gerra garaiko bizitzaz hitz egin zion; alegia, hil ez zirenen eta behin guduak lasaituta alde egingo ez zuten pertsonenak, gerraren zama patu errukigabe baten zama bezala zeramatenak beren bizkar gainean.

ESKER ONAK

Eskerrik asko iturriak aurkitu, ideiak eman eta bolumen hau osatzeko bidean gidatu nauten guztiei. Lehenik eta behin, Branko Marušič-i; ondoren, Tolmineko Museoari, bereziki Marko Gregori; Ciril Kosmač liburutegiari, Tolmineko herriari, kontzeptuak aurrera egin ahala baztertzen joan nintzen testuak bidali zizkidaten guztiei, argitaratutako egileen oinordekoei, eta, lan hau esku artean, ate joka joan natzairen guztiei. Eskerrak eman nahi dizkiot, bereziki, EBko Beste Hitzak - Other Words proiektuari, 2016ko irailean, Bitolako egonaldiaren bidez, azken idazketa eta hitzaurrearen lanketa egiteko aukera emateagatik.